

ERRENAZIMENTUAREN ATARIAN

L. Bandres Unanue

XIII. mendearen bukaeran mendebaldeko Europaren garapen intelektualean egonaldi bat ikusten da. Izurri beltzak ekarri zuen nahaste-borraste ekonomiko nahiz sozialak eta Ehun Urteko gerrak, ez zuten estudio-rako behar den giro patxadatsua izateko aukera handiegirik ematen. Hala ere,



Petrarca

mundua etengabe aldatuz zihoan. Transizio-aro honetan, pentsakera-korrante batzuk agertu ziren eta korrante desberdin guzti horiek batera etortzerakoan “Errenazimentu” izeneko ur handiko ibaia sorterazi zuten. Aurreko lan batean Duns Scoto-ren eta Ockham-eko Gilermoren enbategen Eskolastikaren harresian ireki zituzten pitzadurak ikusi ditugu; Ockhameko Gilermorek Aita Santuaren presondegitik egin zuen ihesak eta Bavariako Luisek eman zion babesak, Elizaren botere monolitikoaren aurkako iraultza suposatzen dute eta, bidez batez, Elizaren aginte unibertsalaren kontrako nazioen eskubideen aldarrikapena.

Errenazimentuaren izpiritua Italian agertu zen lehen aldiz. Garai hartan Italia

aurreko garaitan izandako suntsipenetik bere burua altxatzen ari zen. Agian erro-matar arkitekturaren hondakinez inguraturik egoteak, klasikoak maitatzeko bidea erraztu egin zien. Bestalde, *Quattrocento* estatu-hiriak gaur eguneko estatu modernoen abiaburu izateaz gain, oso topaleku egokiak ziren kulturaz nahi zientziaz arduratzeko. Italiaren puntu

honi buruzko abantaila ulertzeko, XIII. mendeko Parmako Salimbene izeneko frantziskotarraren eritzia ezagutzea ez da alferrikakoa izango: *Italiatik kanpoko erresumetan hirietan jende xehea baino ez da bizi, nobleziako zaldunak eta damak beren bolizko dorre feudaletan bizi dira, hau da, lurren ardura aurrera eramateko beren nekazal jauregietan egon ohi dira. Italian aldiz, goimailako jendea hirietan bizi da eta bertan igarotzen dute beren denbora gehiena. Ezpairik gabe, nagusiak han egoteak etxaldeetako erren-*

dimendua hobetu egiten du, baina bide batez, eta komunikazio zailtako garai hartan, baserrietako bizitzan kulturarako behar diren harreman intelektualak ez dira erraz sortzen. Aldiz, Italiako iparraldeko jende handiaren bizimodu hiritarrak horretarako giro egokia eskain-



Regiomontanus

tzen zuen, ondorio bezala Errenazimentua sorteraziz.

Errenazimentua ez zen literatur iraultza soilik izan. Nahiz eta denbora aldetik literatur elementua aurrena eta nagusienetako izan, beste elementu batzuk ere hartu behar dira kontutan. Iraultza honen aitzindaria Petrarca —1304-1374—dugu. Honengan Danteren olerkietan ez-kutatuta dagoen Erdi Aroko eskolastikatik oso urruti dagoen beste izpiritua ikus daiteke. Petrarca eskolastikoez erabiltzen zuten latin kaskarra arbuatuz latin onaren aldeko agertzen den lehenengo kultur gizona dugu. Horrekin batera, pentsakera klasikoaren benetako izpirituen berreskuratzearen aldekoa eta berak suposatzen duen arrazoiaren libertatearen zalea ere bai.

Petrarca mende batez erratu zen, baina hurrengo mendearen hasieratik, XV.etik alegia, literatura klasikoaren aldeko interes berezia plazaratu zen. Hau dela eta, greko asko ekialdetik mendebaldera etorri ziren literatura eta antzinako kultura grekoa irakastera. 1453.ean turkoek Konstantinopolis bereganatzeak prozesu honi bultzada handia eman zion. Horren eraginez, beraiekin batera beren liburuak eta eskuskribuak zekartzaten irakasle prestu asko iritsi ziren mendebaldera. Eskuskribuen bilaketa modan jarri zen. Italiako eta Europa osoko monastegietako liburutegietan harrapaketa eta lapurreta ugari egin zen eta ekialdean ordezkariak zeuzkaten merkatal-gizonek bereak eta bost egin zituzten mendebalderaino iritsi gabe zeuden idazki grekoak ekar erazteko. Beraz, zortzi edo bederatzi mende geroago mendebaldeko kultur gizonen antzinako grekoen zientzia eta filosofia ezagutzeko aukera eta grina izan zuten.



Erasmus

Baina ezagupen hori baino garrantzi handiagokoak, berak zekarren ikerketarako libertatearen izpiritua eta gai guztiak aztertzeko gogoaz ziren; hau da, *humanismoak* sorterazi zuen giroa. Nahiz eta, erlijio autoritarioak emandako jorrei jarraitu eta, beraz, beste gaietan ere *agintariak* esandakoa onartzeko prest egon, humanistek zientziak geroago ezagutuko zuen pizkundearen bidea urratu zuten. Humanismorik gabe zientzi pentasamoldeko gizonek teologiak finkatutako aurreritziak apurtzea sinestezina da.

Humanismoa Italiatik iparraldera iragan zen. Iragate honetan lehenengotakoa Johann Müller—1436-1476—dugu. Hau Königsberg izeneko hirian jaio zen eta horregatik *Regiomontanus* izen goitiaz eman zitzaion. Berari dagokio lehen aldiz zientzia eta humanismoa uztartzea. Ptolomeoren eta beste zenbait idazle grekoren lanak latinera itzuli zituen eta 1471n Nürnberg-en behatoki bat eraiki zuen, bertan pisuzko erloju bat eta zenbait astronomi tresna egin zituelarik.

Hala ere, Alemanian Errenazimentuaren ondorio nagusia ikerketa biblikoak medio zirela eta, Erreforma du. Alemaniak beste interes batzuk eta kultur kemen berria izan zituen, baina ez zituen Italiaren autokulturaren zaletasuna eta fintasun paganoa bereganatu. Frantzia italiar izpirituekin Alemania baino baterago zetorren eta bertan mugimendu

humanistikoagoa garatu zuen.

Iparraldeko Errenazimentuan izenik handiena Rotterdam-eko Desiderio Erasmo (1467-1536) du. Erasmok humanismoan bere garaiko hutsak garbitzeko jakintzaren eragina ikusi zuen: monastegietako jakinduri eza, Elizaren gehiegikeriak, eskolastikoen harrotasuna eta moralitatearen maila eskasa, besteak beste. Teologo eskolastikoez beren gogoan arabera handik eta hemendik ateratako testuak erabiltzen zituzten bitartean, Erasmok Bibliak, bere osotasunean, eta Elizako Gurasoek irakatsi eta esan nahi duten guztia agerterazi nahi zuen.

Bolada batean eta Leon X.a Aita Santuarekin—1513-1521—bereziki, Vatikanoa bera antzinarako kulturaren kabia bihurtu zen.

Baina, 1527.ean inperioko gudariek Erroma zapaldu ondoren, mundu berri hura hankaz gora jarri zen, eta Aita Santuak aurreko politika eskuzabalarik bukaera eman zion, ulertzen edo kontrolatzen ez zuenaren aurka gogor borrokatuz eta kultura modernoaren martxa oztopatuz.


Papera gure aroaren lehen mendean izan zen asmatua Txinan. Ustez, asmatzailea Tsai Lun izeneko izan zen. Hala ere, Europan papergintzari azkeneko gurutzadatik etorritakoek eman zioten hasiera. Mende bat geroago gutxi gorabehera eta tipo askatuen asmaketarekin, molde finkoen bitarteko inprimaketa gauzatu zen eta, beraz, pergaminoan eskuz idatzitako sistema aspergarriaren

Amaierari hasiera eman zitzaion.

ldi berean, nahiz eta nabigazio-maila apala izan, aurkikuntza geografikoez izugarritzko arrakasta eta bultzada ezagutu zuten. Lehenengo esploratzaileak portugesak ziren. Hauek arabiar-judutar astronomia erabiltzen zuten. Esperantza Oneko Muturra inguratuz Indiaraino iritsitako lehenengoa da Gama Vasco izan zen 1497an. Garai hartan Lurraren biribiltasunaz grekoen teo-

ria onartua zegoen. Teoria honen arabera, Atlantikoan zehar mendebalderantz joanez Asiako kostalderaino iritsi behar zen eta beraz itsasbidea zegoen Indiako gauzak Europaraino ekartzeko. Ideia hau grekoengan ere ikus daiteke; besteak beste, Posidoniogan. Porrot egin zuten mila saio egin ondoren arrakastako unea iritsi zen: Kristobal Colombek 1492ko urriaren 12an Ameriketako kostaldea ikusi zuen. Hogeitalau urte geroago eta hiru urteko bidaia egin ondoren, euskaldun batek (Joan Sebastian Elkannok alegia) Lurrari bira osoa eman zion, ezpairik gabe gure planetaren biribiltasuna frogatuz.

Bidaia handi hauen ondorio hurbila, lur berrien aurkikuntzarekin batera pentsakeraren zabaltzea eta irekitzea da. Baina ez zen hori bakarrik gertatu. Lur berrietara merkatalgoa hedatuz, mendebaldeko industrietan bultzada ezagutu zuten. Bultzada hau bi eratarik eman zen. Batetik, merkatu berriek eta horniketa-iturriek izan zuten eragin ekonomiko zuzen eta zeharkakoagatik. Bestetik, prozesu honek ekarri zuen moneta-faktoreagatik. Moneta ez da berez aberastasuna; ikurra baizik, trukerako bide bat alegia. Mundu Berriko urreak eta zilarrak moneta ugaltzea ekarri zuten eta beraz, prezioak igo egin ziren. Goratze honen bitartez, ekoizlearen nahiz merkatariaren irabaziak igo egin ziren. Aberastasunak eta berak dakarren la-saitasunak, burulanerako behar den giroari lagundu zitoten eta kulturaren ingurua Erdi Arokoa baino askoz zabalagoa bilakatu zen.



Vasco da Gama